Arabako SEADen Lagunen Elkartea
Asociación de Amigos y Amigas
de la RASD de Álava



Informazio Buletina

2025 UZTAILA

Hilabete hauetan, hainbat gaik eragindako zereginei erantzun behar izan diegu, baina, betiere, begiak Palestinan eta Mendebaldeko Saharan jarrita.

Garai txarrak dira herrien eta pertsonen eskubideentzat. Israelek, tradizioz kolonialistak diren Mendebaldeko indarren laguntzarekin, Palestinaren eta bere bizilagunen aurka sortu duen herri-deuseztatze eta hedapen kolonialeko gerrak, edozein ahalegin solidario kolektibo kriminalizatzearekin batera, atsekabe, ezintasun eta etsipen mezu faltsua zabaltzen dute. Ur nahasi perfektuak, non egiaren eta justiziaren etsaiek pozik arrantzatzen duten. Horren adibide garbia da Fronte Polisarioren izena zikintzeko nazioarteko kanpaina, talde terrorista izendatzeko mozioekin, agintari politikoen adierazpen eta komunikabide ospetsuetan – Washington Post edo La Vanguardia bezalakoak – idatzitako artikuluaekin.

Baina, garai ilun hauetan, inoiz baino gehiago, itxaropen solidario guztion betebeharra da, edo, Angela Davisek esango lukeen bezala, itxaropena diziplina bihurtu behar dugu. Ez bakarrik kausa sahararra eta palestinarra juxtuak direlako, baizik eta geure eskubide askoren etorkizuna ere haiek irabazi edo galtzearen mende dagoelako.

Buletin honetan, besteak beste, honako gai hauei buruzko informazioa aurkituko duzu:

- Elkartearen urteko ohiko batzarrari buruzko informazioa
- “Flores de Papel” liburu aurkezpena. Fronte Polisarioaren sorreraren 52. urteurrena.
- Alternatibak antolatutako mahai-ingurua
- II. Gazte Plana
- Bidaia kanpamentuetara
- Palestina Sahara

Antonio de Sucre, 1 - 01003
Vitoria-Gasteiz
www.saharaelkartea.org
administrazioa@saharaelkartea.org

Elkartearen Urteko Batzarra

Ekainaren 24an urteko ohiko batzarra egin genuen, eta bertan nahitaezko gaiak jorratu genituen (2024ko kontuen azterketa, 2025erako aurrekontua, urteko jardueren memoria, Zuzendaritza Batzordea berritzea...). Azken puntu horri dagokionez, jakinarazi nahi dizuegu aurten Zuzendaritza Batzordean Marilo Ruiz de Galarreta izango dela presidentea, Geert Demon diruzaina eta Joseba Gallastegi idazkaria. (Informazio gehiago gure webgunean, gardentasunaren atalean)

“Flores de Papel” liburu aurkezpena

Fronte Polisarioaren sorreraren 52. urteurrena dela eta, Ebbaba Hameidaren "Flores de papel" liburuaren aurkezpena antolatu genuen Artiumen, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoan, maiatzaren 19an. Ehun bat lagun bertaratu ziren, eta Kristina Berasain kazetariak lagundu zion idazleari, liburuaren edukiari buruzko elkarrizketan, eta ondoren egin zen eztabaida zuzendu zuen.





Mahai ingurua Alternatibak antolatutako zikloaren barruan

Maiatzean, Fronte Polisarioaren sorreraren 52. urteurrena zela eta, Alternatiba alderdiak lau mahai-inguru antolatu zituen, bat Hego Euskal Herriko hiriburuetako bakoitzean. Gasteizekoa, hilaren 20an izan zen, eta Oubi Bucharaya Genevako Fronte Polisarioaren ordezkariak, Salka Mahfoud Saharako Ikasle eta Gazteen Ligako ordezkariak eta Jesús Garay SEADen Lagunen Elkarteko kideak hartu zuten parte. Bideratzailea jatorri saharar arreko Nayua Aduh politologoa izan zen.

Oubi Bucharayak 1973an Fronte Polisarioaren sorrera ekarri zuen gogora, baita data hartatik Saharar Herriaren ibilbidea ere. Ondoren, Europako Auzitegiak 2024ko urrian eman zuen azken eta behin betiko epaian jarri zuen arreta. Epai horren arabera, Maroko eta Mendebaldeko Sahara bi lurralde desberdin dira, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea, Polisarioa bere ordezkari legitimotzat hartzen du, eta Saharako Herriak bere baliabideen edozein erabileraren gaineko baimena behar duela berresten du.

Salka Mahfoudek saharar gazteek bi munduren artean pairatzen dituzten zailtasun handiak azaldu zituen, errealitate gero eta eskuindarragoa, xenofoboagoa eta arrazistagoa izanik. Bere sustraiak eta nortasuna ezagutzeko antolatzearen garrantzia azpimarratu zuen. Gainera, bere lekukotasun pertsonala eman zigun, Sahara okupatuan jaioa, non bere familia bizi den eta, bere aktibismoaren ondorioz, sartzea debekatzen zaion.

Jesús Garayk Mendebaldeko Sahararekiko elkartasun-mugimenduaren ezaugarriak deskribatu zituen Espainiako Estatuan. Mugimendu horren lorpen ugariez eta zeharkakotasunaz gain, Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko Espainiako Estatuak bere gain hartu behar duen betebeharra kritikatu zuen, Afrikako kontinente osoan dagoen kolonia bakarra baita. Espainiako "kolonia ohia" dela esaten dutenak salatu behar dira – nabarmendu zuen –. Mendebaldeko Sahara, deskolonizazio-prozesu legala gauzatu arte, Espainiako kolonia da.

Mahai-ingurua osorik eskuragarri dago esteka honetan:
https://www.youtube.com/watch?v=oWuou4n-eVg

II. Gazte Plana





2025-2030 aldirako II. Gazteria Plana RASDeko Gazteria eta Kirol Ministerioak egin du, RASDeko Gobernuaren gazte-politiken Esparru Estrategiko gisa. Plan honek bere aurrekoaren ildo estrategikoak eguneratzen eta sakontzen ditu, eta azken helburuatzat Mendebaldeko Sahararen askapena duten ekimenak bultzatzen jarraitzen du. Plana egiteko Begirune Fundazioaren lankidetza izan da, eta Arabako RASDeko Lagunen Elkartearen etengabeko laguntza eta aholkularitza.

Plan berri honen bidez, Saharako gazteek kausa nazionalarekin duten konpromisoa indartu nahi da, haien baldintza sozialak eta egunerokoak hobetuz. Izan ere, Saharako gazteak indartzeko SEADen gobernuaren ekintzak gidatzeko funtsezko tresna izatea du helburu, bai eta sahararren kausari laguntzeko nazioarteko erakundeekin aliantzak egiteko erreferente izatea ere.



Saharar errefuxiatuen kanpamenduetara bidaia – 2025eko maiatza

Maiatzean, Elkartearen talde teknikoa Saharako kanpalekuetara joan zen, abian diren proiektuekin lotutako hainbat ekintza koordinatzeko eta tokiko alderdi guztiekin jarraipen-bilerak egiteko, koordinazioa, aurrerapenen ebaluazioa eta elkarren arteko plangintza indartuz.

Gazteria Sailak II. Gazteria Planaren aurkezpen ofiziala egin zuen, Begirune Fundazioko taldearekin lankidetzan. Gainera, Helder Luiz Santos (Street Work Training Institute) eta Alejandra Codesal (IRSE Araba) izan ziren eta Aaiungo wilayako kale-hezitzaileen taldeari bigarren prestakuntza saioak eman zizkieten.

Hilaren amaieran, Amara Vallejo boluntarioa bertara joan zen Scout Erakundeko nerabeen hezkuntza-taldeekin ikastaroaren ebaluazio bateratua egiteko.

Ingurumen-osasunaren arloan, Ur eta Ingurumen Ministerioko taldearekin batera lan egin genuen, 2021ean Bojadorren hasitako etxeko hondakinen bilketa erdi-selektiboaren proiektuaren atal administratiboa ixteko.

Era berean, Gizarte Gaietarako eta Emakumearen Sustapenerako Ministerioarekin koordinatuta, bost wilayetatik lautan topaketak antolatu genituen, gizarte gaietako zuzendari nagusiaren parte-hartzearekin. Topaketa horietan eskualdeko bost zuzendaritzak eta gizarte-langile guztiak bildu ziren, gutxitasuna duten 800 pertsona baino gehiagoren artean elikagaien segurtasunari buruz egingo den inkesta prestatzeko. Gainera, desgaitasuna duten pertsonekin eta haien familiekin bilerak egiten jarraitzen dugu, haien errealitatean sakontzeko, behar espezifikoak identifikatzeko eta eguneroko zailtasunak ulertzeko.

Azkenik, maiatzaren amaieran, Imanol Domínguez boluntarioak elikadura osasungarriari buruzko prestakuntza eman zien UJSARIOko Emakume Gazteen Erakundeko emakumeei, bultzatzen ari garen elikadura osasungarriaren programaren esparruan.























Antonio de Sucre, 1 - 01003
Vitoria-Gasteiz

www.saharaelkartea.org

administrazioa@saharaelkartea.org

Sahara eta Palestina

Israelek Palestinako herriaren aurka egin duen deusestatze- eta hedapen-gerraren ondorioz, jende asko interesatu da Palestinako eta Saharako errealitateen[1] arteko antzekotasun eta desberdintasunengatik. Ebidentzia nabaritik harago - hala bi herrien banderen antzekotasuna, nola Marokok Saharan eta Israelek Palestinan lurraldeak legez kanpo okupatzea, edo bi lurraldeetan banantze-horma bat egotea eta potentzia okupatzaileek giza eskubideak sistematikoki urratzea- bi kasuetan jokoan dagoena nazioarteko eskubide-sistema osoaren jarraipena edo desagerpena da. Hau da, Nazioarteko Komunitatearen kontzeptua sortu zuen erregulazioa eta haren aplikazioa arautzeko erakundeak -NBE, nazioarteko auzitegiak…- aplikazio unibertsalekoak diren (baita Palestinarentzat, Mendebaldeko Sahararentzat edo beste edozein herrialderentzat ere) edo soilik interes ekonomiko, geopolitiko edo estrategikoen arabera.

Kolonialismoaren amaierak, aberastasunen espoliazioak edo gatazkak armen indarren bitartez «konpontzeko» bezalako gai potoloak, ez dira, jakina, Saharan edo Palestinan bakarrik erabakitzen, baina, bi kasuetan, kolonialismoaren eta nazioarteko eskubidearen aldeko eta kontrakoen gatazkaren iraupenak eta dimentsioak garrantzi berezia ematen die bi borrokei.

Egungo egoeran, Espainiako gobernuaren, Enmanuel Macronen, edo, berrikiago, Britainia Handiko gobernuaren adierazpenek, Israelek bere burua defendatzeko eskubidea eta Mendebaldeko Sahararako Marokoren barruan autonomia-estatutuaren alde, eskubide unibertsalen aurkako jarrera baino ez dute adierazten, eta, migrazio-politikekin gertatzen den bezala, gutxiengo global baten (Mendebaldearen, Europaren) pribilegioak edozein preziotan babestu nahi dituzte.

Zalantzarik gabe, aldeak daude inperialismoak gatazka bakoitzean jarduteko moduari dagokionez. Adibidez, Israelek jatorrizko biztanleria fisikoki desagerraraztea erabaki du; izan ere, populazio horren presentzia eta erresistentzia-gaitasun hutsak arazoak sortzen baitizkio proiektu kolonial hedatzaileari. Marokok, berriz, saharraren eragina geltidu nahi du, errepresioaren bidez eta sahararren ordez Marokotik ekarritako kolonoak erabiliz, lehenik indarrez ekarriak eta, ondoren, pizgarri ekonomiko eta sozialen bidez. Era berean, Israelek erabili dezakeen krudelkeria osoa erakusteko arazorik ez duen bitartean (izuaren pedagogia gisa), Marokok errealitatea ezagutzea hala edo nola saihestu nahi du eta, ondorioz, edozein behaketa-misio edo kazetaritza-misio independenteri -NBEko erakunde espezializatuei barne-sartzea eragozten dio.

_____

[1] Begirada globala saharar ikuspegitik, honako honetan irakurdaiteke: https://www.elindependiente.com/opinion/2024/07/14/palestina-y-el-sahara-occidental-dos-pueblos-con-la-misma-razon/#google_vignette

Hala ere, bi prozesuen arteko funtsezko aldea da estatu sionista dela tragediaren zuzeneko erantzulea eta eragile nagusia, eta Sahararen kasuan, berriz, Marokok eta Espainiako Estatuak partekatzen dutela egungo gatazkaren zuzeneko erantzukizuna. Horrek zuzenean inplikatzen gaitu, eta, agian horrexegatik, dituen ondorio guztieei aurre egitea saihesten dugu.



ASKATASUNA MENDEBALDEKO SAHARA ETA PALESTINARENTZAT

Antonio de Sucre, 1 - 01003
Vitoria-Gasteiz
www.saharaelkartea.org
administrazioa@saharaelkartea.org